

Euskararen borroka: herri mugimenduak organizatzeako ordua

JOSERRA Gartzia-ren umea gaiso jarri zen, hiru urte bete gabekoa. Gurasoek Erresiden-tziara eraman behar izan zuten. Ume txikien plantan bakarrik utzi zute-nean, ez zegoen umeari zeinek hitz eta kasu egin. Umeak ez du euskaraz besterik egiten. Gero, hainbat istilu eta gorabehera (mediku batek: «yo os aconsejaría que le educárais en bilingüe»), umearen mila desesperazio eta azkenean nolabaiteko soluzioa.

Historia hori, joan den otsailan, nahikoa ezaguna izan dugu. Joserra Gartzia periodista da.

Ez zuen, ordea, familia baten eta ume baten historia izan behar. Denon historia zen. *Euskal Herrian Euskaraz* hor dago: iruditzen zait, aukera ezin hobeago bat izan zitekeela, benetan eskandalo bat muntatzeko. Euskararen arazoa politizatu egiten dugula, esaten zaigu (“*el problema no es del niño, sino la ideología de los padres*”). Egia soil eta sinplea, askotan giza eskubideen minimoaren azpitik gabiltzala, besterik ez da. Kanpaina bat merezi zuen, promesa hutsak baino, soluzio bat eskain diezaguten arte gaisoetxe guztietan. Denok bat egin eta ez amore eman, kanpaina sistematiko bat egin gure eskubidea errebindikatzeko.

FINEAN, kontua da, zenbat antzeko kasu ematen den Euskal Herriko gaisoetxeetan, umeekin bezala zaharrekin. Kontua da, nola geratzen den edozein euskaldun mila tokitan, erdaraz jakin arren, bere bizitza euskaraz bizi ohi duena. Eta kontua da, hain zuzen gaiso dagoenean, inoiz bai eta tratu humano bat beharrago lukeenean, euskaldunak arrotz eta estraino bezala nola egon behar izaten duen herriko gaisoetxeetan.

Elkartzeko eta antolatzeako ordua da. Organizatzeako. Gure eskubideak edonon errebindikatzeko, lehenago. Horrelakoak ez bait dira gertatzen gaisoetxeetan bakarrik. Tribunaletan, bulego publikoetan, udaletan, elizetan, Posta etxeetan. Gutxi-asko, euskara, ia bizitza sozial guzti-guztitan, errebindikazio hutsaren mailan aurkitzen da. Alderdi abertzaleen beren aurrean, edo barruan, euskara oraindik errebindikatu egin behar izaten da, eta euskaltzale “arradikalak” tipo bitxi zoro samar molesto batzuk gertatzen dira.

Are gehiago, Euskadi berreuskaldundu nahi bada, euskal kulturaren normalkuntza zinez nahi bada, ezinbestekoa da euskararen aldeko taldeak eta mugidak eta proiektuak elkartzea, bateratzea, koordinatzea, organizatzea. Euskal kulturaren batzarreak herriz-herri eta alorrez-alor osatzea. Elkarki laguntzea eta indartzea.

BATEGINIK aurten saio bat izan da, berriro ikasten hasteko, euskara aurrera ateratzeko, bategin eta elkarrekin kolaboratu beharra daukagula. (Ze, beste borroka batzuek urteotan elkarrengandik hurrundu bagaituzte, ikasten hasi beharko dugu berriro, nola elkartu). Kanpainak bere alde onak eta txarrak izan ditu. Besteak beste, batasuna ez

dela erraza, erakutsi du. Baina ez dela inposiblea.

Esperientzia honetan lortu den elkartasuna, organizazioa, iraunkortu eta sendotu egin behar da orain. Gero, alor bakoitzean (unibertsitatean, teatroan, irakaskuntzan, kantuan, prentsan), bestelako diferentzien gainetik, euskararen interesak begiratuko eta bultzatuko dituzten batzordean antolatuko behar dira, euskaren berreskurapenak baso sozial ekinor bat izan dezan.

Joserra Gartzia bada norbait herri honetan, badaki mogitzen, badu eskola, badu ausardia, eta bere arazoa konpondu ahal izan zuen. Baina ez hark ez inork dauka herri honetan, zergatik bakarrik egon horrelako kasuetan, bere problemarekin. Edo zergatik bakarrik eta desanparoa aritu bere proiektuarekin, euskal kulturaren zerbait egin nahi duenean. Telefonoa hartu eta nola deitu, non laguntza aurkitu, behar dugu, kasu guzti horietarako.

Herri mugimendu organizatu eta bizkor bat, euskararen alde, edozein politika linguistiko efikazen aurrebaldintza izango bait da, azken finean.

JOXE AZURMENDI